



Itsas enpresaren ideia gauzatzeko kostuak **bi bloke** handitan banatuta daude: batetik, itsasontzia eta autobusak hileroko alokatzea, eta, bestetik, enpresan lan egingo duten langileak.

Enpresak, beraz, ez du hasierako inbertsiorik behar, enpresaren egoitza bazkideetako batena delako eta horretarako alokatzen zaiolako. Gainerakoa lortzen dugun bezero kopuruaren araberrako kostuak izango dira.

Alokairuak:

Bulegoaren hileko alokairua: 300 euro

Autobusen alokairua: 600 euro astebururo, hilean 2400 euro guztira.

Itsasontziaren alokairua: 600 euro astebururo, hilean 2400 euro guztira

Langileak:

. Bi pertsonak bezeroen harrera egingo dute eta itsasontzitik jatetxera eramango dituzte. 1200 euro kobratuko dituzte hilean.

. Itsasontziko tripulazioa; itsasontziak 3 marinel behar dituzte arrantza-tresnak eta -aparailuak eta itsasontzia maneiatzeko. Bezeroei azalpenak emango dizkiete. Soldata hilean 1.200 eurokoa izango da.

. Gidak; turistentzako gidari gisa jarduten duten eta itsasontzian nahiz arratsaldeko jardueretan laguntzen duten hiru pertsona behar dituzte pentsatzen dugu, hala nola Ondarroako kaleetan egiten diren ibilaldiak, Likonako Dorrea edo Eliza bezalako monumentuak, bertako kaleak eta tradizioak azalduz. Hilean 1200 euro ezartzen dira pertsona bakoitzeko.

. Trikitilariak; musika eskolako trikitilari taldeari 250 euro ordainduko zaie astebururo, beraz, 1000 euro hilean.



Kostu aldakorrak;

Jatetxea:

Erretegi Joxe Manuel Erretegi jatetxearekin bazkari tradizional bat eskaintzea adostuko da: marmitakoa eta arrain edo haragi erre, baita gatzatua, kafea eta ardoa ere. Pertsonako, 30 euro.



Kontserba-fabrika:

Marino Martinez de Luco kontserba-fabrikarekin adostuko da bezero bakoitzarenkako opari bat. Oparia produktu lote txiki bat izango da: Ondarroako bi hegaluze-lata oliba-oliotan eta antxoak gazituak. 10 euro.

Publizitatea:

1.000 euroko kostua ezartzen da publizitatean.

Printzipioz, asmoa da publizitateko inbertsioa irratian egitea, publizitate-iragarkiekin, publizitate-kartekin eta liburuxkekin, Lea Artibaiko herrietako turismo-bulegoetan.

Azterketa ekonomikoa:

Azterketa ekonomikorako, sasoikotzat hartuko diren bost hilabeteak ezarri dira. Ez da bezero kopuruaren estimazio oso arriskutsua egin, izan ere, lehenengo hilabeteetan 100 bezero estimatu dira (60 tarifa estandarra eta 40 tarifa murriztua). Horrek esan nahi du 25 pertsona baino ez direla lortzen astebururo, hau da, 12 pertsona eguneko. 2,3,4 hilabeteetan hilean 40 pertsona gehiago lortuko direla estimatu dugu, eta 5. hilean 320 pertsonatan mantentzen gara (180 tarifa estandarrean eta 140 tarifa murriztuan),

Eguneroko ikuspegitik aztertuta, esan nahi du egunean 22 pertsona ditugula tarifa estandarrean eta 17 tarifa murriztuan. Hau da, lor daitezkeen zifrak direla uste dugu.

Egindako kalkuluen arabera, **3. hilaren erdialdean diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka-puntura iritsiko ginateke, eta negozioa errentagarria izaten hasiko da.**